

Emakumeok ez gara ume-fabrikak



MARIA COLERA INTXAUSTI
ITZULTZAILEA

Sorginkeriari buruzko *Malleus Maleficarum* izenburuko tratatuan (1486) aipu hau ageri da: “Elizaren arabera, sexu-harremanean gizonak arimadun gizakitxo bat txertatzen du emakumearen gorputz barruan, eta hau bederatz hilabetez egongo da umetokian, amaren batere ezaugarri bereganatu gabe”.

Ekainaren 28aren harira, Espainiako aldizkari digital batek zenbait gay ospetsu elkarrizketatu zituen eta haietako batek, hotel-kate baten jabe aberatsak, hauxe zioen: “Triste jartzen nau geuk umeak edukitzeari trabak jarri nahi izatea”. Baieztapen horrek falazia borobila ezkututzen du, ordea, eragotzi nahi dena ez baita umeak edukitzea, erostea baizik.

Hala Elizak nola kapitalista misoginoek emakumeok zulo/labe/ontzi/inkubagailu soiltzat hartzea ez da harrizkoa, baina ezkerretik eta feminismitik ere entzun dugu umeen salerosketa –edo marketineko termino irensgarriago eta aseptikoagoetan esanda, haurdunaldi subrogatua– arautzearen aldeko argudiorik.

Hala Elizak nola kapitalista
misoginoek emakumeok
zulo/labe/ontzi/inkubagailu
soiltzat hartzea ez da
harrizkoa, baina ezkerretik
eta feminismitik ere entzun
dugu umeen salerosketa
arautzearen aldeko
argudiorik

Batzuek aukera askea aipatuko dizute, askatasuna subjektuaren bizi-baldintza materialei lotuta dagoela eta erabaki “indibidual” guztiak sozialki determinatuta daudela ahaztuta. Beste batzuek altruismoaren karta ateratzen dute, feminismoak berrehundik gora urte daukanean argi eduki beharko genukeenean maitasuna eta altruismoa historikoki inposatutako mendetasun-rolen fruitu direla askotan, besteen behar eta desirak geurenen aurretik jartzeko sozializatu baikaituzte. Desirak

eta eskubideak nahasten dituenik ere bada, emakume batek besteren ume-kiak inkubatzea eskubidetzat hartuz gero –noiz eta jaiotza-tasa inoiz baino baxuagoa denean–, eskubide hori zein emakumek ase beharko luketen azaldu gabe. Ez baitirudi oso sinesgarria emakumeak norberaren umerik ez, eta besterenak edukitzen hasiko direnik.

Eta zeri zor zaio egungo jaiotza-tasa baxua? Umeak edukitzerik ez dutenek umeen merkaturako sarbiderik ez izateari ez, preseski. Kontua da ama izan orduko areagotu egiten dela pobrezia-arriskua eta hori bada berehala konpondu beharreko arazo sozial bat, gutxi-gutxi batzuren apeta genealogikoak ez bezala. Eztabaida honen protagonistak dira erdigunean jarri behar ditugunak –amak–, eta amatasuna zama ez izateko politikak bultzatu: amatasun-baimen duinak, haurtzaindegi publiko merkeak, haurdunak ez kaleratzea, zaintzaren gaineko erantzukizun sozial eta kolektiboa... Hobe genuke biztanleriaren erdiari eragiten dioten esku-bideok betetzea, ustezko eskubide berriak asmatzen ibili beharrean. ●

 ARGIA

ZURE JENDEA
HEDABIDEAK
IRAGARKIA



Jarri zure
publizitatea
hemen!

publiz@argia.eus
943 37 15 45
argia.eus/tarifak